BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

# EKONOMIA SUSTAPENERAKO BATZORDEAK GOI ERRENDIMENDUKO ZENTRO BAT ETA SURF MUSEO BAT SORTZEA ATZERA BOTA DU

- **Talde Berezia / PP Bizkaia alderdiko Arauz besteko Proposamenak ez du jaso batzarretako beste inolako alderdiren babesa.**

*(Bilbon, 2019ko abenduaren 9an).-* Bizkaiko Batzar Nagusietako Ekonomia Sustapenerako Batzordeak atzera bota du, aurkako 13 botorekin eta aldeko boto 1ekin, Talde Berezia / PP Bizkaia alderdiko Arauz besteko Proposamena. Haren bidez, txosten bat idazteko eskatu zuen, ur beroko dutxak eta armairuak surflarientzako hondartzetan instalatzeko eta baita Goi Errendimenduko Zentro bat eta Surfaren Museo bat Bizkaian sortzea ere.

Proposamenaren xedea "lurraldeko turismoa sustatzea" zen, surfarekin lotuta, zenbait balioespenaren arabera, horren eraginez, urtero 75.000 lagun etortzen delako Euskadira kirol hori praktikatzeko.

Xabier Benitok (Elkarrekin Bizkaia) kritikatu du proposamenak surfa "esplotazio turistikoarekin eta ekonomiaren sustapenarekin" lotzea. "Kirola lehiakortasuna baino askoz gehiago da", aldarrikatu du.

Francisco Javier Fernándezek (Euskal Sozialistak) ekimenari zergatik uko egin dioten azaldu du: "ekonomia sustatzeko edozein jarduera bertako kolektiboen ernamuinetatik egin behar da" eta hainbat ekimen aipatu ditu, besteak beste: Sopela eta Getxoko udalek kirol hau sustatzeko garatutakoak.

Izaskun Duquek (EH Bildu) nabarmendu du surfa ingurumenarekin erabat lotuta dagoela eta turismo jasangarria eta gune naturalen mantenua defendatu ditu.

Jesús Lekerikabeaskoaren ustetan, (Euzko Abertzaleak), Surf Museo bat sortzeak "ez dauka lehentasunik" eta ziurtatu du goi mailako kirolarien karrera sustatzeko foru plan bat dagoela.

Amaya Fernándezek, Talde Berezia / PP Bizkaia alderdiaren bozeramailea, bere proposamenak jaso duen laguntza gutxi deitoratu du eta Bizkaiko "isolazionistegiak diren politikak" kritikatu ditu, euren eraginez, lurralde honek ekonomia garapenerako aukerak galtzen dituelako.

Hauxe izan da gai-zerrendaren puntu bakarra, Elkarrekin Bizkai eta EH Bildu alderdiek metal hitzarmenari buruzko proposamen bat atzera bota dutelako, sektore honetan akordio batera iritsi ondoren.

BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

# LA COMISIÓN DE PROMOCIÓN ECONÓMICA RECHAZA CREAR UN CENTRO DE ALTO RENDIMIENTO Y UN MUSEO DEL SURF

- **La Proposición No de Norma del Grupo Mixto / PP Bizkaia no ha contado con el respaldo de ningún otro grupo juntero.**

*(Bilbao, a 9 de diciembre de 2019).-* La Comisión de Promoción Económica de las Juntas Generales de Bizkaia ha rechazado por 13 votos en contra y 1 a favor una Proposición No de Norma del Grupo Mixto / PP Bizkaia que pedía elaborar un informe para instalar duchas de agua caliente y taquillas en las playas para surfistas así como la creación de un Centro de Alto Rendimiento y un Museo del Surf en Bizkaia.

El objetivo de la propuesta era “la promoción turística del territorio” relacionada con el surf que, según algunas estimaciones, hace que cada año 75.000 personas visiten Euskadi para practicar este deporte.

Xabier Benito (Elkarrekin Bizkaia) ha criticado que la propuesta ligara el surf “a la explotación turística y a la promoción económica”. “El deporte es mucho más que competitividad”, ha defendido.

Francisco Javier Fernández (Socialistas Vascos) ha explicado su rechazo a la iniciativa porque “cualquier impulso de actividad económcia debe hacerse desde los embriones de los colectivos locales” y ha citado iniciativas como las de los ayuntamientos de Sopeala y Getxo para promocionar este deporte.

Izaskun Duque (EH Bildu) ha destacado que la práctica del surf está completamente ligada al medio ambiente y ha abogado por un turismo sostenible y por el mantenimiento de los espacios naturales.

En opinión de Jesús Lekerikabeaskoa (Nacionalistas Vascos), la creación de un Museo del Surf “no es una prioridad” y ha asegurado que hay un plan foral para impulsar la carrera de deportistas de élite.

Amaya Fernández, portavoz del Grupo Mixto / PP Bizkaia, ha lamentado la falta de apoyo a su propuesta y ha criticado “las políticas demasiado aislacionistas” de Bizkaia que hacen que este territorio pierda oportunidades de desarrollo económico.

Éste ha sido el único punto del orden del día, al retirar Elkarrekin Bizkaia y EH Bildu una propuesta sobre el convenio del metal tras haberse alcanzado un acuerdo en este sector.